



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko irailaren 30a

110. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, Adin txikikoei alkoholduen edariak kontsumitzea galarazi eta mugatzeari buruzko martxoaren 16ko 10/1991 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzen duena. Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkeztu dute (4. or.).

—Foru Lege proposamena, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 42. artikulua aldatzekoa. Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta Manu Ayerdi Olaizola eta Paxi Leuza García jaunek aurkeztu dute (6. or.).

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazioa berrantolatu, sinplifikatu, modernizatu eta demokratizatzeko oinarriak ezartzen dituena. Zuzenketak aurkezteko epea (7. or.).

—Foru Lege proposamena, Nafarroako izaera bereziko fundazioen zuzendaritza organoak arautzen dituena. Zuzenketak aurkezteko epea (8. or.).

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea (8. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Jabeldura, itzalpeko bidesarien ereduaren aldeko apustuan Nafarroako Gobernuak jarraitzen dituen irizpide orokorreari buruzkoa, Txentxo Jiménez Hervás jaunak egina (9. or.).

—Jabeldura, Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-kudeaketaren gaineko politika orokorrari buruzkoa, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak egina (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da abal publikoak eta prezio arazoizkoak susta ditzan merkataritzako lokalen alokairuari dagokionez. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).

—Mozioa. Horren bidez, EITBri eskatzen zaio egun dagoen sare analogikoa digitaliza dezan. Manu Ayerdi Olaizola eta Paxi Leuza García jaunek aurkeztu dute (12. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere erabateko desadostasuna adierazten du Estatuko Gobernuaren asmoa dela eta, Espainiako Gazteriaren Kontseilua desagerraraztekoa. Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta Patxi Leuza García jaunak aurkeztu dute (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da fibromialgia eta neke kronikoari buruzko jarduera-protokolo zehatz bat presta dezan. Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai, Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrak eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta Patxi Leuza García jaunak aurkeztu dute (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Espainiako Gobernuari adieraz diezaion ez dagoela ados Norberaren kontsumo elektrikoa arautzeko lege proiektuarekin. Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai, Izquierda-Ezkerra eta Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrak parlamentu-taldeek eta Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztu dute (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak salatzen du Franco jeneralak 1936ko uztailean gidatutako altxamendu militar faxista eta haren ondorengo diktadura. Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkeztu dute (16. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu Alderdi Popularraren Gobernuak pentsioak aldatzeko duen proiektuaren aurka dagoela. Eledunen Batzarrak onetsia (18. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten baitu “Iruñeko udal dermioko administrazioarteko hitzarmena, Etxabakoizko Lanbide Heziketako zentroa hobetu eta Donapean ikerketa zentroak ezartzea erraztekoa”. Eledunen Batzarrak onetsia (18. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen baitu ospitaleko farmaziaz-gastuaren koordinketa aplikatzea. Eledunen Batzarrak onetsia (19. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, pertsona etorkinentzako doako osasun-laguntzari buruzkoa, Samuel Caro Sádaba jaunak egina (20. or.).
- Galdera, Feder funtsei buruzkoa, Feder 2007-2013 programa eragilearen esparruan, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (21. or.).
- Galdera, Lan Autonomoaren Nafarroako Kontseiluaren eraketari buruzkoa, Ana Beltrán Villalba andreak egina (22. or.).
- Galdera, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin etxegabetzeen gaineko hitzarmen bat sinatzeari buruzkoa, Eloy Villanueva Cruz jaunak egina (22. or.).
- Galdera, Tafallako Errekoleten eraikinari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (23. or.).
- Galdera, Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko harreman instituzionalei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (23. or.).
- Galdera, UPNk, PSNk eta PPNk Enpleguaren Mahaian adostutako neurriei buruzkoa, Ana Beltrán Villalba andreak egina (24. or.).
- Galdera, 2007-2013 urteetarako Nafarroako Landa Garapenerako Programaren gastu publikoari buruzkoa, Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egina (25. or.).
- Galdera, Nafarroako zenbait udalerriri 1. mailako menpekotasun larriko pertsonen etxez etxeko zerbitzua ordaintzeari buruzkoa, Patxi Leuza García jaunak egina (26. or.).
- Galdera, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 75.1 artikulua aplikazioari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (27. or.).
- Galdera, gastu-sabaia balizko zerga-aldaketetara egokitzeko aukerari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (27. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak lehendakariak iragarritako zerga-erreforma integralari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (28. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari egindako komunikazioa, Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2013ko eztabaida dela-eta (29. or.).
- Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2013ko eztabaida antolatze arauak (31. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Lege proiektua, Adin txikikoei alkoholdun edariak kontsumitzea galarazi eta mugatzeari buruzko martxoaren 16ko 10/1991 Foru Legea aldatzen duena.**

*ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Adin txikikoei alkoholdun edariak kontsumitzea galarazi eta mugatzeari buruzko martxoaren 16ko 10/1991 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2013ko urriaren 7ko eguerdiko hamabiak arte**

luzatzea. Aipatu foru lege proiektua 2013ko irailaren 6ko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko irailaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 23an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hona

**ERABAKIA:**

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.

**2.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2013ko irailaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Foru Lege proposamena,  
Nafarroako Ogasun Publikoari  
buruzko apirilaren 4ko 13/2007  
Foru Legea aldatzen duena**

**ZIOEN AZALPENA**

Krisi ekonomiko eta politikoak markaturiko tes-tuinguru batean bizi gara, eta kudeaketa publikoa-rekiko mesfidantza sakona da haren ezaugarrieta-ko bat. Jarduera publikoaren garapenean gardentasuna eta argitasuna izatea funtsezko ardatza da erakundeekiko konfiantza eta horien sinesgarritasuna pixkanaka oinarritzen joateko.

Gardentasun-eskaera horrek politikaren esparru guztietan du eragina. Horietako bat da –eta, zalantzarik gabe, aparteko garrantzia du– erakun-deek beren kontuen egoerari eta etorkizunerako hartzen dituzten arriskuei buruz ematen duten informazioaren kantitatea eta kalitatea.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeak, besteak beste, Nafarroako kontu orokorren edukia arautzen du, bai eta finantza-eragiketak ere.

Lege proposamen honek hobekuntza batzuk ezarri nahi ditu bi esparru horietan.

Legearen III. tituluak finantza-eragiketak arau-tzen ditu –horien barruan zorpetzea eta abalak daude–, eta berariazko xedapen batzuk ematen ditu Nafarroako Foru Komunitateko enpresa-entitate publikoei, fundazio publikoei eta sozietate publikoei buruz.

Zehazki, abalei dagokienez, ezartzen du Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak xedatuko duela uneoro abalek izanen duten gehieneko arrisku bizia. Puntu horretan, bi hobekuntza proposatzen dira. Alde batetik, foru erkidegoaren gehieneko arrisku bizia zehatz dadila, menpeko enpresa-entitate publikoak, fundazio publikoak eta sozietate publikoak kanpoan utzita; eta, bestetik, bigarren arrisku bizi gehieneko bat zehatz dadila menpeko entitate horiek osatzen duten bigarren kolektibo horretarako. Bestalde, zehatz daitezela, halaber, bi kolektiboek –foru erkidegoak, alde batetik, eta haren menpeko entitateek, bestetik– kasuan kasuko ekitaldian eman ahalko dituzten abalen gehieneko kopuruak.

Azken batean bilatzen dena da argitasunez zehatz daitezela har daitekeen balizko arriskuaren mugak, foru erkidegoko Administrazioaren zuzene-ko jardueran ez ezik, haren menpeko entitateen jardueran ere.

Bestalde, VI. tituluak kontabilitatea arautzen du: I. kapituluaren arau orokorrak ematen ditu, eta II. kapituluaren urteko kontuak arautzen ditu.

Arau orokorrei dagokienez, ezinbestekoa da ondasun, eskubide eta betebeharrak guztien erregistroari buruzko kontabilitate publikoko printzipioa argitzea. Zehazki, estatuko eta Europako araupe-tzeekin bat etorritik, ibilgetuaren barruan sartu beharrekoak dira erabilera publiko edo orokorreko azpiegiturak eta ondasunak. Gai hori behin eta berriz gogorarazi izan du Kontuen Ganberak bere urteroko auditoria txostenean.

Kontu orokorrak direla eta, egokia dirudi hiru gogoeta egiteak.

Alde batetik, etorkizuneko ekitaldien kargura hartutako gastu-konpromisoen egoerari buruzko informazio gehigarria emateko errekerimendu bat. Zehaztu beharra dago ezen informazioa, egun ematen denaz gainera –kode ekonomikoaren arabera xehakaturik, batetik, eta programa eta departamentuen arabera, bestetik–, kapitulu ekonomikoaren arabera xehakaturik ere aurkeztu beharko litzatekeela, 40. artikuluan ezarritakoa egiaztatu ahal izateko.

Bigarrenik, ezinbestekoa da zorpetzeari eta emandako abalei buruz ematen den informazioak aipamena ez egitea bakarrik Nafarroako Foru Komunitateak zuzenean hartutakoaz, baizik eta menpeko entitateek (enpresa-entitate publikoak, enpresa-fundazio publikoak eta sozietate publikoak) hartutako zorpetzearen eta abalen bilakaeraz ere, eta zehaztasunez xehaka dezala bilakaera hori.

Hirugarrenik, interesgarritzat jotzen da ezar-tzea ezen araudi publikoaren arabera publikoak ez izanik merkataritza-araudiaren arabera menpeko sozietate edo talde anitzeko sozietate diren urteko kontuak ere jaso daitezela. Egungo egoeran, horrek aukera emanen luke Audenasaren eta Parques de la Naturaleza de Navarraren (Sendaviva) kontuen berri ere emateko.

**Artikulu bakarra.** Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzea.

1. 75.1 artikulua. Foru lege baten bidez baimendu beharko da abalen ematea. Horretarako, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak ezarritako du uneoro abalek izan dezaketen gehieneko arrisku bizia, bai eta kasuko ekitaldian eman ahal izanen diren abalen gehieneko zenbatekoa ere, bi balio horiek bereiz finkatuta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarentzat, batetik, eta, bestetik, haren menpeko entitateen multzoarentzat –enpresa-entitate publikoak, fundazio publikoak eta sozietate publikoak–.

2. 75.3 artikulua. Parlamentuak berariazko baimena eman ezean, inongo pertsona fisikok edo juridikok ezin izanen du izan aipatutako Aurrekontuei buruzko Foru Legean ezarritako gehieneko arrisku biziaren 100eko 5etik gorako zenbatekoa duten abalen onuradun. Gehieneko arrisku bizia entitate emailearen arabera aintzat hartuko da, hau da, abalak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo haren menpeko entitateek emanak izatearen arabera.

3. 121.1.f) artikulua. Ondasun, eskubide eta betebeharrak guztiek erosketa-prezioaren edo ekoizpen-kostua adierazita agertu behar dute. Azpiegiturak eta erabilera publiko edo orokorreko gainerako ondasunak sartuko dira. Betebeharrak diru-itzulketaren aldetik duten balioaren arabera kontabilizatu behar dira.

4. 127.e) artikulua. Memoria global bat, balantzean, ekonomia eta ondare arloetako emaitzaren kontuan eta aurrekontuaren likidazioaren egoerari buruzko informazioa handitu eta iruzkintzen duena. Partikularki, memoriak argibide hauek emanen ditu:

- Diruzaintzako gerakina.
  - Ekitaldi itxietatik kobratu beharreko eskubi-deen eta ordaindu beharreko betebeharraren bilakaera eta egoera erakusten dituen egoera-orria.
  - Etorkizuneko ekitaldien kontura harturiko gastu konpromisoen egoera-orria.
- gutxienez ere kapitulu ekonomikoaren arabera xehakaturik, foru lege honetako 40. artikulua jasotako baimenaren babesean.

• Diruzaintzako kontu orokorra. Ekitaldia hastean eta bukatzean den egoera eta ekitaldiko eragiketarako adierazi beharko ditu.

• Zorpetzeari buruzko kontu orokorra, zeinak informazio xehakaturik izanen baitu, batetik, Nafarroako Foru Komunitatearen zorpetzeari buruz eta, bestetik, haren menpeko entitateen zorpetzeari buruz.

- Ondasun eta eskubideen inbentarioa.
- Emandako abalen egoera-orria, ekitaldian zehar saldo bizi abalatu izandako aldaketak adierazita, informazio xehakaturik emanez, batetik, Nafarroako Foru Komunitateari buruz eta, bestetik, haren menpeko entitateei buruz.

• Ekitaldian, jabari publikoko ondasunetan, erabilera orokorrari lotutakoetan, egindako inbertsioak erakusten dituen egoera-orria.

- Plantilla organikoaren egoera eta bilakaera adierazten duen egoera-orria.

5. 128. artikulua. Foru lege honetako 2. artikuluko e) eta f) letretan aipatzen diren sozietate publikoen eta enpresa-entitate publikoen kontuak Espainiako Enpresen Kontabilitate Plan Orokorrean aipatzen direnak izanen dira. Gainera, gutxieneko eduki hau ere izanen dute:

- Administrazio publikoetatik harturiko diru-laguntza eta bestelako transferentziak adierazten dituen egoera-orria. Foru erkidegoko Foru Administrazioak edo haren erakunde autonomoek emanak diren adieraziko da.

- Plantillaren egoera eta bilakaera adierazten duen egoera-orria.

- Parte hartzen duteneko sozietateen kapitala ordezkatzeko duten titulu baloreen zerrenda, non adieraziko baita kasuan kasuko sozietatea, partaidetza portzentajea, hasierako balorazioa, eta erosketengatik edo salmentengatik ekitaldian izaniko aldaketak.

- Kontabilitate erregulartasuneko auditoria.

Halaber, sartuko dira foru lege honen 2. artikuluan sarturik egon gabe ere merkataritza-araubideari jarraituz Nafarroako Foru Komunitatearen menpekoak edo talde anitzekoak diren sozietateen urteko kontu auditatuak.

---

## **Foru Lege proposamena, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 42. artikulua aldatzekoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 23an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta Manu Ayerdi Olai-zola eta Paxi Leuza García jaunek aurkeztu dute Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 42. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 42. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena.

**2.** Foru lege proposamena presako prozeduraz eta irakurketa bakarrean izapidetzea.

**3.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi eguneko dela.

**4.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, zeina bukatuko baita eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2013ko irailaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Lurraldearen Antolamenduari eta  
Hirigintzari buruzko abenduaren  
20ko 35/2002 Foru Legearen  
42. artikulua aldatzeko  
Foru Lege proposamena**

**ZIOEN AZALPENA**

Udal batek izapidetutako hirigintza-aldaketan emandako ezezkoari izkin egite aldera Nafarroako Gobernuak geroago udalez gaindiko plan sektorialaren tresna ezohikoa erabiltzea –Iruñeko Donapea IPIren kasuan bezala– mugaz gaindiko plan sektorialaren figurari iruzur egitea da, eta udalen hirigintza arloko eskumenak urratzea.

**Artikulu bakarra.** Idatz-zati berri bat –3 bis– gehitzen zaio Lurraldearen Antolamenduari eta

Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 42. artikuluari.

42.3. bis artikulua. “Ezin izanen dira mugaz gaindiko plan edo proiektu sektorialaren prozeduraren bidez izapidetu hirigintza-aldaketan proposamenak, baldin eta kasuko udalaren Osoko Bilkurak lehenago izapidetu eta baztertu baditu.”

**Xedapen gehigarria.**

Foru lege honetan xedatutakoa aplikatuko zaie izapidetzen ari diren udalez gaindiko plan edo proiektu sektorial behin betikoz onetsi gabe.

**Azken xedapena.** Indarrean sartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

**Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazioa berrantolatu, sinplifikatu, modernizatu eta demokratizatzeko oinarriak ezartzen dituen.**

**ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 23an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2013ko irailaren 19an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazioa berrantolatu, sinplifikatu, modernizatu eta demokratizatzeko oinarriak ezartzen dituen Foru Lege proposamena. Proposamen hori Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2013ko ekainaren 7ko 62. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148., 152.1 eta 153. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

**ERABAKIA:**

**1.** Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazioa berrantolatu, sinplifikatu, modernizatu eta demokratizatzeko oinarriak ezartzen dituen Foru

Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea, Erregelamenduko 152.1 eta 153. artikuluetan ezarritako berezitasunak kontuan hartuta.

**2.** Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Batzordearen esku uztea.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2012ko urriaren 22ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalgo dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2013ko irailaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## Foru Lege proposamena, Nafarroako izaera bereziko fundazioen zuzendaritza organoak arautzen dituenak.

### ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 23an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2013ko irailaren 19an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea Nafarroako izaera bereziko fundazioen zuzendaritza organoak arautzen dituen Foru Lege proposamena. Proposamen hori Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2013ko ekainaren 25eko 73. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

#### ERABAKIA:

1. Nafarroako izaera bereziko fundazioen zuzendaritza organoak arautzen dituen Foru Lege

proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea,.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2012ko urriaren 22ko eguerdiko hamabietan bukatuko da**. Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2013ko irailaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena.

### ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 23an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2013ko irailaren 19an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena. Proposamen hori Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztu eta 2013ko ekainaren 10eko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148., 152.1 eta 153. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

#### ERABAKIA:

1. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena prozedura arruntari

jarraikiz izapidetzea, Erregelamenduko 152.1 eta 153. artikuluetan ezarritako berezitasunak kontuan hartuta.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2012ko urriaren 22ko eguerdiko hamabietan bukatuko da**. Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2013ko irailaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera



---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Jabeldura, itzalpeko bidesarien ereduaren aldeko apustuan Nafarroako Gobernuak jarraitzen dituen irizpide orokorrei buruzkoa.**

### *TXENTXO JIMÉNEZ HERVÁS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervás jaunak aurkezturiko jabeldura, itzalpeko bidesarien ereduaren aldeko apustuan Nafarroako Gobernuak jarraitzen dituen irizpide orokorrei buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko irailaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **JABELDURAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko jabeldura aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari.

Orain dela zenbait urte eta zenbait legegintzalditik hona, Nafarroako Gobernuak, UPNk zuzendu eta mantendua betiere, itzaleko bidesarien ereduaren aldeko apustua egiten du. Eredu horri jarraikiz egin ziren Lizarrako edo Pirinioetako autobien moduko errepide azpiegiturak.

Orobat, Nafarroako Gobernuak itzaleko bidesarien eredu horren beraren aldeko apustua egin

zuen Nafarroako Ubidean ureztatze-obra osagarriak eraikitzeko. Berrikitan, Gobernuak iragarri du eredu hori baliatuko duela Estellerrian ubidearen trazatu berrian ere.

Eredu horrekin batera, Nafarroako Gobernuak, orainari nahiz etorkizunari begira, zehazgabetsun handiarekin mugitzen ari da azpiegitura handi horien gaineko merkataritza nahiz prezio arloko politikari dagokionez. Politika horren adibide da Nafarroako aurrekontuentzat "Audenasaren Merkataritza Politika" izeneko kontusailak dakarren gastu handia.

Itzaleko bidesarien politika horren ondorioz, Nafarroako Aurrekontuetan ia 100 milioi euro bideratu behar dira jada politika horri aurre egiteko. Zenbateko hori, 25 urtetik gorako ordainketa-epeak dituen, handituz doa urtez urte, modu oso kezagarrian.

Horregatik guztiagatik, itzaleko bidesarien ereduaren aldeko apustuan Nafarroako Gobernuak darabiltzan irizpide orokorrei buruzko honako jabeldura hau aurkeztu du parlamentu-talde honek, horien prezioen politikei eta azpiegitura handietako merkataritza-politikei buruzkoa, jakite aldera zein den politika horren inpaktu ekonomiko eta soziala aurrekontu publikoetan, bai gaur egun, bai epe ertain eta luzean.

Iruñean, 2013ko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervás

## **Jabeldura, Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-kudeaketaren gaineko politika orokorrari buruzkoa.**

### **SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko jabeldura, Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-kudeaketaren gaineko politika orokorrari buruzkoa.

**2.** Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzera.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko irailaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **JABELDURAREN TESTUA**

Roberto Jiménez Alli, Socialistas de Navarra parlamentu-taldearen eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako jabeldura aurkeztu du, Legebiltzarren Osoko Bilkuran eztabaida dadin –izapideak modu urgentean egin daitezela eskatzen du–, Nafarroako Gobernuak aurrekontu-kudeaketaren arloan darabilen politika orokorrari buruz.

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-kudeaketaren arloko politikari buruzko jabeldura aurkezten dio foru gobernari; zehazki, ondokoei buruzkoa: 2012ko aurrekontuaren kudeaketarako 2012ko ekainaren amaiera aldean hartutako kudeaketa-neurriak; 2012ko ekitaldiaren ixtea; 2013rako gastu-sabaiaren finkatzea; 2013rako aurrekontu-luzapena; 2013ko aurrekontu-kudeaketa, eta 2014rako gastu-sabaiaren finkatzea.

Parlamentu-talde honen ustez –sarritan adierazi dugu zein den–, 2012ko ekainaren amaiera aldean hartutako erabakiek de facto ekarri zuten Nafarroako Gobernu departamentu guztien gastu eta inbertsioen erabateko kontrola eta “esku-hartzea”, Legebiltzarrek 2011ko abenduan aurrekontua onetsi zuenean adierazitako borondatea distortsionatuz, hartara, aurrekontu-kudeaketaren bidez.

Kontrol eta kudeaketa hori 2013an zehar mantendu dira. Gobernuak bere irizpide propioei jarraituz kudeatzen du aurrekontu-luzapena, berak egoki irizitako gastu-sabaia alde bakarrez finka-

tzen du, eta bere lehentasun politiko eta alderdikoen arabera hartzen ditu inbertsio eta gastuen gaineko jarduketa eta erabaki politikoak, praktikan dakartenak ongizate-maila eta hezkuntza, osasun eta gizarte zerbitzuen zerbitzu-maila jaitea. Kudeaketak ekonomia suspertzeko eta enplegua sortu ahal izateko neurriak hartzea ere ez dakar.

Horretaz gain, ez da behar beste argitzen dirubilletaren kudeaketa, bereziki BEZarengatik dirubilleta, eta Foru Ogasunak PFEZarekin zenbait zergaren itzulketak egiteko atzerapenen gaineko kezka orokortua dago.

BEZarengatik dirubilletaren bilakaeraren eta aurreikuspenen arloan, harrigarria da dirubilletak eta aurreikuspenak zerikusirik ez izatea Estatuko gainontzeko ogasunetan –baita foru ogasunetan ere– izandakoarekin eta aurreikusitakoarekin. Areago: orain dela gutxi Legebiltzarrean egindako agerraldi batean, Ekonomiako kontseilariak ezin izan zuen zehaztu ea defizit helburuaren zerbait kontuan hartzen zen 835 milioi euroko zenbatekoa –kontabilitatean urtean zehar “kutxan” biltzen denaren irizpidearen arabera– edo 1.000 milioi eurotik gorako zenbatekoa –urte honi egotzitako BEZarengatik dirubilletaren irizpidearen arabera, doikuntzen erregulazioarekin heldu den urteko lehen hiruhilekoan gauzatuko dena–.

Halaber, lasaikeria edo efizientzia eta eragin-kortasun eskasa dago ekintzaileentzako eta enpresentzako finantza-babesa ekarri beharko luketen tresnei dagokienez, Sodenaren jarrera herabetia eta uzkurra baita enpresa-ekimenei laguntzerakoan. Anbizio politikorik ez dagoela erakusten dute, argi eta garbi, “Europako Inbertsio Bankua” lerroaren erabilera eskasak –2012ko amaiera aldean ez ziren ezta hogeitaz milioi ere eman maileguan, hitzarmeneko zuzkidura berrehun eta berrogeita hamar milioikoa denean– eta sozietate publikoaren irizpide ezak, erabakitzerakoan zer proiektutan inbertitu eta zer proiektutan ez inbertitu. Ondorioa argia da: izan, badira inbertsio proiektu bideragarriak eta horietarako zirkulatzaile-premiak, behar adinako finantza-babesik eta babes instituzionalik ez dutenak, eta proiektuak ezin dira gauzatu.

Testuinguru horretan, iragan irailaren 11n, UPNren Gobernuak 3.405 milioi euroan ezarri zuen 2014rako gastu-muga; hau da, egungoaren % 0,62 handiagoa. Gogorarazi beharra dago

2013rako gastu-sabaiaren murrizketa % 8koa izan zela; hortaz, 2014rako igoera pirriko honek berekin dakar atzerakada larri bat finkatzea eta egungo politika mantentzea, gizarte-murrizketen politika eta ekonomia ez dinamizatzearena eta enplegu berriak sortzearena.

Hausnarketa horiek egoki eta beharrezkoa egiten dute Gobernuak 2012ko ekainaren amaiera aldetik orain arte aurrekontu-kudeaketaren arloan baliatutako politika orokorrari buruzko jabeldura hau.

Iruñean, 2013ko irailaren 19an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abal publikoak eta prezio arrazoizkoak susta ditzan merkataritzako lokalen alokairuari dagokionez.**

### *IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita abal publikoak eta prezio arrazoizkoak susta ditzan merkataritzako lokalen alokairuari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Sustapen Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko irailaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko kide Txema Mauleón Echeverría jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Sustapen Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abal publikoak eta prezio arrazoizkoak susta ditzan merkataritzako lokalen alokairuari dagokionez.

Zioen azalpena

Nafarroako Estatistikaren Institutuaren arabera, 2012an % 8 jaitsi dira merkataritza sektorearen salmentak Nafarroan. Jaitziera horrek 406 pertsonaren enpleguaren suntsiketa eragin du

merkataritza txikian, eta 136 lanposturena merkataritzagune handietan.

Merkataritza jardueraren jaitziera hori 2008tik hona gertatzen ari da, merkataritzako fakturazioa % 30 murrizteraino.

Orain dela gutxi, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldearen galdera bati erantzunez, Sustapeneko kontseilariak adierazi zigun Nasuvinsak 129 merkataritza-lokal dituela jabetzan, eta horietarik 102 daudela hutsik. Horien kokalekuari eta alokatzeko edo erosteko baldintzei buruz galdetu genuen arren, lehenengo galdera erantzun gabe gelditu da, eta bigarrenean esan zaigu "lokal horiek saldu, alokatu edo erosteko aukerarekin alokatzeko baldintza ekonomikoak berrikusten ari" direla.

Esan gabe doa merkataritzaren sektoreak Nafarroan bizi duen krisian aldagai askok eragiten dutela. Horien artean nabarmendu behar dira jarduera ekonomikoaren jaitziera, soldaten eta, hortaz, erosahaltenaren murrizketa, oraindik bideragarriak diren negozioek funtzionatzeko krediturik eza eta abar.

Oraingo honetan azpimarra jarri nahi dugu autonomo eta enpresaburu txiki askok, merkataritza-lokal egokiak ez aurkitzeagatik, negozio bat jarri ahal izateko dituzten zailtasunetan, bai alokairuko edo salmentako prezioak ez direlako egungo egoera ekonomikoaren arabera, bai, besterik gabe, jabeek ez daukatelako behar adinako bermerik alokairu horiek kobratzeko. Ondorioz, nabarmen ari da igotzen merkataritza-lokal hutsen kopurua, horrek dakarren hondatze ekonomiko eta sozialarekin.

Halaber, harrigarria iruditzen zaigu, kontuan hartuta jarduera ekonomikoa nahiz merkataritza arlokoa sustatu eta errazteko eta administrazio publikoaren diru-sarrerak areagotzeko dagoen premia, Nasuvinsa enpresa publikoak 129 merkataritza-lokal edukitzea eta horietarik 102 –% 80, horra– jarduerarik gabe egotea.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak erabaki du:

1. Nafarroako Gobernuak premiatzea titulartasun publikoko merkataritza-lokalen alokairuaren arloko bere egungo politika berrikus dezan, halako moduan non Nasuvinsaren jabetzako merkataritza-lokalak arrazoizko prezioan eskuratu ahal izanen baitituzte negozio bat jarri nahi duten pertsonak.

2. Neurriak aztertzea, beste arlo batzuetan bezala, ekintzaileei errazte aldera merkataritza-lokal pribatuen edo publikoen alokairua, alokairuak ordaintzen direla bermatzen duten abal publikoen sistema bidez, bai eta lokal horiek zaintzen direla eta erabilera-baldintzak betetzen direla ere.

Iruñean, 2013ko irailaren 13an

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

## **Mozioa. Horren bidez, EITBri eskatzen zaio egun dagoen sare analogikoa digitaliza dezan.**

### *MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PAXI LEUZA GARCÍA JAUNEK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola eta Paxi Leuza García jaunek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez EITBri eskatzen baitzaio egun dagoen sare analogikoa digitaliza dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko irailaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

2013ko abuztuaren 5ean, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak aho batez onetsi zuen adierazpen instituzional bat, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazi baitzien “Navarra Directo” telebista-programako langileei eta programa horrek egindako zabal-kunde lana aitortu baitzuen.

Adierazpen instituzional horretako 2., 3. eta 4. puntuak, berriz, gehiengoz onetsi ziren. Hirugarrenak, zehazki, hauxe zioen hitzez hitz: “Nafarroako Parlamentuak berresten du jarduketara bide berriak jorratu beharra dagoela Nafarroan LDT bidez jaso ahal izan dadin ETB, eta Nafarroako Gobernuak arlo horretan izan duen jarrera itxia gaitzesten du.” Azkenik, 4. puntuak eskatzen zuen adierazpen instituzionalaren testua Eusko Jaurlaritzari eta EITBri helaraztea.

Espiritu horrekin bat, eta jakinda ere litekeena dela denboratxo bat behar izatea Nafarroan ETB hartzeko behin betiko konponbidea arautzen den arte, bereziki Nafarroako Gobernuak bertan behera utzi ostean Nafarroako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean sinatutako lankidetzako protokoloa, proposamen hau egin dugunok aukera bat jarri nahi dugu mahai gainean, bitartean hobetu ahal izan dadin ETBren seinale-hartzea Nafarroan, eta hartara ETBk Nafarroan dituen ikus-entzuleen gogobetetasunari lagundu.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak EITBri eskatzen dio egungo sare analogikoa digitaliza dezan aldi baterako, behin betiko konponbidea arautzen den arte.

Iruñean, 2013ko irailaren 11n

Foru parlamentariak: Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere erabateko desadostasuna adierazten du Estatuko Gobernuaren asmoa dela eta, Espainiako Gazteriaren Kontseilua desagerraraztekoa.**

*SOCIALISTAS DE NAVARRA, BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK ETA PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriaren entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta Patxi Leuza García jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere erabateko desadostasuna adierazten baitu Estatuko Gobernuaren asmoa dela eta, Espainiako Gazteriaren Kontseilua desagerraraztekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Gizarte Politiketako Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko irailaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Gizarte Politiketako Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin.

Espainiako Gazteriaren Kontseiluak bere lehen urratsak trantsizioaren hasieran eman bazituen ere, 80ko urteen hasieran eratu zen egiaz, nortasun juridiko berekiko zuzenbide publikoko entitate gisa, zeinaren helburu nagusiak baitira gazteriaren elkartegintza eta parte-hartzea sustatzea bizitza politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalean eta gazteak botere publikoen aurrean ordezkatzeko. Bere bultzada zor zitzaion Espainiako Konstituzioko 48. artikuluan jasotako manua betetzeko beharrari, eta Europako gainontzeko herrialdeetako eredu juridiko eta antolakuntzazkoen arabera egin zen, gazteria-mugimendu antolatu guztiak eta parlamentuko orduko indar politikoez iz aho batez hala erabakita.

Espainiako Gazteriaren Kontseiluaren sorrera lagungarri gertatu zen gazte-elkartegintza gara-

tzeko, eta autonomia erkidegoetako gazteria kontseiluak sortzen joateko balio izan zuen, Estatua- ren erakunde-egituraketa egin bidenabar, xede eta helburu bereberekin eta zume juridiko eta instituzio- nal berberak erabiliz, zeinak gazteak beren elkar- teen bitartez autoantolatzearen ideian oinarritzen baitira funtsean. Jardunean egondako urte haue- tan guztietan, Espainiako Gazteriaren Kontseiluak protagonismo handia izan du, izan diren gobernu guztientzat mintzakide baliotsuena izateraino, gaz- teak kezkatzen dituzten arazoei dagokienez beren sentsibilitatea eta iritzia helaraziz.

Hori dela-eta, gobernuaren alde bakarreko era- baki baten ondorioz hemendik gutxira desagertu- ko delako iragarpena, albiste ezin okerragoa izate- az gain, oker larria ere bada, Espainia gure inguruko herrialdeetako gazte-ordezkaritzako ere- dutik urruntzen duena.

Nafarroako Parlamentuak honakoa erabaki du:

1. Nafarroako Parlamentuak bere erabateko desadostasuna adierazten du Estatuko Gobernu-aren asmoa dela eta, Espainiako Gazteriaren Kon- tseilua desagerraraztekoa, erakunde horrek 30 urte luzetan lagundu baitu gazteen elkartegintza eta parte-hartzea sustatzen eta gazteak erakunde publikoen aurrean ordezkatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak itxaro du Estatuko Gobernuak asmo hori zuzenduko duela eta era- kundea mantenduko duela, jatorrizko taxukera juridikoarekin eta barne antolamenduarekin, Espainiako Gazteriaren Kontseilua sortu zenean eman zitzaizkion helburuak bermatzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa adierazten du Nafarroako Foru Komunitateko gaz- teen parte-hartzeko egitura publikoen mantent- zearekin eta kontserbazioarekin, eta Gobernu Kontseilua premiatzen du konpromiso hori manten- dezan Nafarroako Gazteriaren Kontseiluarekin.

Iruñean, 2013ko irailaren 17an

Foru parlamentariak: M.<sup>a</sup> Victoria Arraiza Zor- zano, Bikendi Barea Aiestaran, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano, Txema Mauleón Echeve- rría eta Patxi Leuza García

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da fibromialgia eta neke kronikoari buruzko jarduera-protokolo zehatz bat presta dezan.**

*SOCIALISTAS DE NAVARRA, BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI, NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRA ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK ETA PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai, Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularra eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta Patxi Leuza García jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita fibromialgia eta neke kronikoari buruzko jarduera-protokolo zehatz bat presta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko irailaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin.

Osasun Batzordean lan bilera egin genuen FRIDA-Nafarroako Fibromialgia eta Neke Kronikoaren Elkarrearekin; orduan azaldu zizkigutenez,

zaila da gaixotasunaren diagnostiko hobe eta azkar bat egitea, eta ez dago prozesu horren gaineko iritzi kliniko bat emateko berariazko proba osagarririk. Hori dela-eta, beste autonomia erkidego batzuek jarduketa protokolo zehatz bat prestatu dute fibromialgia eta neke kronikorako. Hori guztia ikusita, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ondoko neurriak abiaraz ditzan:

- Osasun arloko jarduketa protokolo bat sor dezan.
- Gaixotasun horiei buruzko ikerkuntza, sensibilizazio eta prestakuntza berariazkoaren gainera areagotu dezan osasun arloko langileen eta elkarteko langileen artean.
- Gaixotasun horiek dituzten langileentzako zerbitzu, aholku eta laguntza lerroak presta ditzan.
- Gaixotasun kroniko horiek ezgaitasuna eragiten duten gaixotasun gisa har ditzan.
- Gaixotasun horiek minusbalioaren barruan –ezgaitasunak– ebalua ditzan, eta gaixo bakoitzaren beharrietara egokitu ditzan lanpostuak.

Foru parlamentariak: Maite Esporrín Las Heras, Bakartxo Ruiz Jaso, Patxi Zabaleta Zabaleta, Amaya Zarranz Errea, José Miguel Nuin Moreno eta Patxi Leuza García

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Espainiako Gobernuari adieraz diezaion ez dagoela ados Norberaren kontsumo elektrikoa arautzeko lege proiektuarekin.**

*SOCIALISTAS DE NAVARRA, BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI, IZQUIERDA-EZKERRA ETA NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRA PARLAMENTU-TALDEEK ETA MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai, Izquierda-Ezkerra eta Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularra parlamentu-taldeek eta Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Espainiako Gobernuari adieraz diezaion ez dagoela ados Norberaren kontsumo elektrikoa arautzeko lege proiektuarekin.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko irailaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen dugun taldeok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkezten dugu Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Honen bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Espainiako Gobernuari adieraz diezaion ez dagoela ados hark proposaturiko Autokontsumo elektrikoa arautzeko lege proiektuarekin, egiaz autokontsumoa eragozten baitu, bai balantze garbi gisa, bai sarera isuri gabeko autokontsumo propioan.

Zioen azalpena

Espainiako Gobernuak Autokontsumo Elektrikori buruzko Lege proiektu bat prestatzen ari da; halere, sektoreko elkarteek, kontsumitzaileen

elkarteek eta Energiaren Batzorde Nazionalak berak diotenez, egiaz autokontsumoa eragozten du, bai balantze garbiaren modalitatean, bai sarera isuri gabeko autokontsumo propioan.

Behean sinatzen dugun taldeok uste dugu oraindik ere garaiz gaudela Espainiako Gobernuak egiten ari den planteamendua aldatzeko, bideragarria izan dadin, egiaz, autokontsumoaren aldeko apustua egiten duenak hala egin ahal izatea.

Autokontsumoak abantaila guztiak ditu, eta batere eragozpenik ez; horregatik, hain zuzen ere, enplegu, berrikuntza, ikerkuntza eta garapen aukeren iturria delako; familiek eta enpresek ordaintzen duten elektrizitate-faktura jaisten laguntzen balio duelako; enpresen lehiakortasunari mesede eginen diolako; egungo sareari berari eraginkortasun energetikoa ematen diolako; gure ordainketa-balantza hobetzen duelako, jaitsi egiten baita inportatu beharreko erregai fosilekiko menpekotasuna; eta herri gisa exijitzen zaizkigun ingurumen-helburuak betetzera hurbiltzen gaituelako, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Espainiako Gobernuari adieraz diezaion ez dagoela ados Autokontsumo elektrikoa arautzeko lege proiektuaren gaur egungo taxuarekin, eta balantze garbiko autokontsumoaren eta sarerako isurketarik gabeko instalazioak sustatzeko lege proiektu bat negoziatuz, erabiltzaileentzat bideragarria izanen dena, ez diskriminatzailea, errespetuzkoa herritarren askatasun indibidualekin eta autonomia erkidegoek, baita Nafarroako Foru Komunitateak ere, etorkizuneari arlo horretan izan ditzaketen eskumenekin.

Iruñean, 2013ko irailaren 18an

Foru parlamentariak: José Antonio Rapún León, Samuel Caro Sádaba, Víctor Rubio Martínez, Juan Carlos Longás García, Ana Beltrán Villalba, José Miguel Nuin Moreno eta Manu Ayerdi Olaizola

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak salatzen du Franco jeneralak 1936ko uztailean gidatutako altxamendu militar faxista eta haren ondorengo diktadura.**

### *BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak salatzen baitu Franco jeneralak 1936ko uztailean gidatutako altxamendu militar faxista eta haren ondorengo diktadura.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko irailaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Jakina denez, 2010eko apirilaren 14an, kereila bat aurkeztu zen Argentinako zigor arloko epaitegi batean, Francoren diktadurak 1936ko uztailearen 17tik (kolpe hiritar-militarraren hasiera) 1977ko ekainaren 15era bitartean (lehen hauteskunde demokratikoak egin ziren eguna) Espainiako Estatuan eginiko genozidio delitu eta/edo gizateriaren aurkako krimenengatik.

Biktimen senideek nahiz Argentinako eta Espainiako elkarte sozial eta giza eskubideen arlokoek aurkeztu zuten. Horiekin bat egin dute, edo laster bat egiteko prestatzen ari dira, ehunka auzi-jartzaile eta salatzaille partikular, diktaduraren azken etapako errepresaliatuak eta askotariko elkarteak: kulturalak, sozialak, sindikalak eta abar.

4591/10 zenbakidun kereilak salatzen ditu "Francoren erregimenak eta horren egileek 1936ko uztailearen 17tik 1977ko ekainaren 20ra bitartean eginiko genozidio delituak edo, subsidiarioki, gizateriaren aurkako krimenak".

Kereila horren izapidetzeak arrakala bat irekitzen du frankismoa babesten jarraitzen duen zigorgabetasun-harresian. Gaur egun, bada aukera Argentinako epaitegi horren aurrean aurkeztu eta Espainiako Estatuan ukatzen den justizia eskatzeko. Estatu osoan barrena jasotzen ari diren testigantza dokumentatuak lagungarriak dira zitalkeria haren neurriaz jabetzeko. Helburua da gure historia hurbilaren zati ezinbesteko bat berreskuratzea, haren faltsutzea eragozte, eta erantzukizunak eskatzea erregimen hura berrogei urtez mantendu zutenei.

Kereilaren oinarri juridikoa da jurisdikzio edo justizia unibertsalaren printzipioa, zeinaren bidez edozein herritako epaitegiek jardun ahal eta behar baitute nazioartea kaltetu eta iraintzen duten krimenak gertatzen direnean.

Eta hori dena heldu da Espainiako Estatuko Auzitegi Gorenak nahi duelako Amnistiaren Legeak Espainiako jurisdikzioa salbuetsi dezan diktaduraren krimenak ikertzetik, garrantzizko bi konturi izkin eginez: batetik, lege hori Konstituzioa aldarrikatu baino lehen onetsi zela –ondorioz, ulertu behar da ezin diola aurka egin Konstituzioak aldarrikatzen duen justiziarako eta gizakien oinarritzko eskubideen babeserako eskubideari eta, beraz, gizateriaren aurkako krimenen arduradunak epaitzeari–, eta, bestetik, lege hura egin baino lehen Espainiak nazioartean konpromisoa hartua zuela nazioarteko zuzenbidearen printzipio orokorren arabera delitu direnak egin dituztenak persegitzeko, baita persegitze hori barneko zuzenbidean aurreikusita egon gabe ere. Preskribitzen ez duten krimenak izateaz gain, nazioko eta nazioarteko legediaeta jurisprudentzia finkatuaren arabera, non edo noiz egin ziren kontuan hartu gabe ikertu eta zigortu beharrekoak dira.

Egin nahi dena ez da bakarrik desagertuak berriro desagerraraztea, baizik eta haien desagerrarazleak ere desagerraraztea. Galarazi nahi da haien krimenak ezagutzea, haien izenak ezagutzeta: hiltzaileenak, torturaztaileenak, haur-bahitzaileenak. Falaziaz argudiatzen da denak hilda daudela, hildakoek eta beren familiek justiziarik beharko ez balute bezala, eta isilarazten da, nahita gainera, ehunka direla bizirik dauden biktimak eta errepresoreak, eta azken horiek epaituak eta



penalki zigortuak izan daitezkeela, eta hala izan beharko luketela.

Atzerriko epaitegien jarduna herriek eskura duten arma indartsua da, herri barruko justizia faltaren aurka borrokatzeko. Besteak beste, zigorgabetasunaren aurkako nazioarteko salaketa bihurtzen da; ziurtatzen du biktimek epaile baten aurrean deklaratu ahal izatea; krimena egin zen lurraldean ukatzen diren ikerketa judizialak abian jartzea; bidea ematen du arduradunak deklaratzera deitzeko eta, krimenetan parte hartu izanaren zantzu sendoak izanez gero, haien aurkako espetxeratze agindua emateko eta, horretarako, nazioarteko atxilotze-aginduak emateko; agerian uzten du ezen, nazioarteko jazarpenaren eta aurkitzen diren tokian atxilotuak izateko arriskuaurrean, zigorgabetasuna duten munduko toki bakarra dela delitua egin zuten bera.

Horregatik guztiagatik, funtsezkoa da, partikularren salaketez gain, erakunde publikoak kereila babesteko lanean konprometi daitezen. Horregatik guztiagatik, behean sinatzen dugun parlamentutaldeok honako erabaki proposamena aurkeztu dugu, eztabaidatu eta bozka dadin:

1. Parlamentu honek berriz ere salatzen du 1931n zilegitasunez eraturako errepublikaren eta legez eraturako Espainiako, Euskadiko eta Kataluniako gobernuen aurka Francisco Franco Bahamonde jeneralak 1936ko uztailean zuzendutako altxamendu militar faxista.

2. Parlamentu honek salatzen du altxamenduaren ondotik ezarri zen diktadura, zeinean odolez eta suz erreprimitu baitzen disidentziaren eta askatasunaren, justizia sozialaren eta eskubide indibidual nahiz kolektiboen aldeko borrokaren arrasto oro, berrogei urtez.

3. Parlamentu honek salatzen du nekazari-tzako, industriako eta finantzetako oligarkien parte handi batek eta Eliza Katolikoaren hierarkiak izan-

dako jokabidea; izan ere, lehenbizi kolpea babestu zuten eta, ondoren, ezarritako erregimen faxista.

4. Parlamentu honek babestu egiten ditu frankismoak errepresaliatutako pertsonen eskubideak eta aldarrikapenak, eta Estatuko administrazio publikoei, hau da, erakunde politiko eta judizialei, exijitzen die beharrezkoak diren neurriak har ditzatela 1936ko uztaileko altxamendu militarren, erregimen frankistaren eta Estatu-terrorismoaren errepresaliatuei honako eskubideok bermatzeko: erregimen hari buruz daukaten egiarako eskubidea baliatu ahal izatea, haren jarraitzaileek, historia berridazteko egin ohi dituzten ahaleginei, aurka egite aldera; egiazko justiziarako eskubidea, eginiko gizateriaren aurkako krimenen arduradunen egungo zigorgabetasun egoera gaintitze aldera; frankismoaren ehun milaka biktimei ordain duin eta bazterketarik gabekoa ematea, eginiko eskubide-uraketengatik; eta, azkenik, gizarte osoaren eskubidea aldaketa soziopolitiko, juridiko eta instituzionalak ezartzeko, berriro halakorik ez gertatzea ziurtatze aldera.

5. Konpromiso-ildo horri jarraikiz, Parlamentu honek adierazten du babestu eta bat egiten duela frankismoan eginiko giza eskubideen urraketan arduradunen aurka genozidioa eta gizateriaren aurkako krimenak egiteagatik Argentinan Errepublikako Buenos Aires hiriko 1. epaitegian aurkeztutako 4591-10 kereilarekin, zeinen ikerketa María Servini de Cubría epaileak baitarama.

6. Parlamentu honek herritarrak animatzen ditu frankismoaren krimenen aurkako kereila babestera, bai frankismoan zuzenean errepresaliatuak izan zirenak edo hala izan zirenen ahaideak kereila-jartzaille gisa aurkeztuz, bai diktadura salatuz eta haren krimenen eta kriminalen aurkako kereilarekin bat eginez.

Iruñean, 2013ko irailaren 19an

Foru parlamentariak: Víctor Rubio García eta Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu Alderdi Popularraren Gobernuak pentsioak aldatzeko duen proiektuaren aurka dagoela.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2013ko irailaren 23an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1.- Nafarroako Parlamentua PPren Gobernuak pentsioak aldatzeko duen proiektuaren aurka dago erabat; izan ere, langileek eta erretirodunek irabazitako eskubideen murrizketa nabarmena dakar, eta, ondorioz, errenta osoaren banaketa publiko txikiagoa, txirotze handiagoa, segurtasun eta berdintasun gabezia gizartearen

gehiengoarentzat, eragin handiarekin gaur egungo nahiz etorkizuneko erretirodunentzat.

2.- Nafarroako Parlamentuak ez du babestuko arlo horretako inolako aldaketarik, non eta ez den adostasunez egiten.

3.- Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du lege aurreproiektu hori erretira dezan”

Iruñean, 2013ko irailaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten baitu “Iruñeko udal dermioko administrazioarteko hitzarmena, Etxabakoizko Lanbide Heziketako zentroa hobetu eta Donapean ikerketa zentroak ezartzea erraztekoa”.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2013ko irailaren 23an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten du “Iruñeko udal dermioko administrazioarteko hitzarmena, Etxabakoizko Lanbide Heziketako zentroa hobetu eta Donapean ikerketa zentroak ezartzea erraztekoa”, Nafarroako Gobernuak abiarazia eta Iruñeako Udalean UPNk duen Gobernu Batzarrak onetsia. Izan ere, Nafarroaren eta Iruñeko

hiriaren interes orokorrarentzat kaltegarria eta horren kontrakoa dela uste du.

2. Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten du aipatu hitzarmena onesteko prozedura, jarduteko modu horren desleialtasun eta ilunkeriagatik, eta gaitzetsi egiten du Nafarroako Gobernuaren jokabidea”

Iruñean, 2013ko irailaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiazen baitu ospitaleko farmazia-gastuaren koordainketa aplikatzea.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2013ko irailaren 23an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten du ospitaleko farmazia-gastuaren koordainketa aplikatzea, bidegabeki erasaten baitie gaixo bereziki larriei, zeinei babes eman beharrean babes kentzen baitzaie egoera bereziki traumatikoetan, eta berretsi egiten du Ongizatearen Estatua arian-arian eraistearen aurka dagoela, hori baita gobernu hau egiten ari dena hezkuntza, osasuna eta

gizarte zerbitzu publikoak bezalako arlo hain sentibera eta premiazoetan.

2. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du pertsonak berdindu eta duin egiten dituzten oinarritzko zerbitzu publikoekiko konpromisoa eta defentsa; alegia, osasun, hezkuntza eta gizarte zerbitzuekikoa.”

Iruñean, 2013ko irailaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, pertsona etorkinentzako doako osasun-laguntzari buruzkoa.****SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako galdera, pertsona etorkinentzako doako osasun-laguntzari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko irailaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Samuel Caro Sádabak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernu-ko Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Osasuneko kontseilariak agerraldia egin zuen 2013ko irailaren 12an, eta hartan azaldu zuen zer emaitza izan duen Espainiako Gobernuko ordezkariekin Lankidetzaren Batzordean izandako negoziazioak. Argi gelditu denez gero PPren Gobernuak errekurritu eginen duela otsailaren 25eko 8/2013 Foru Legea, zeinaren bidez Nafarroako osasun-sistema publikoan doako osasun-laguntza jasotzeko eskubidea aitortzen baitzaie Nafarroan bizi diren pertsoneri., Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du

Galderaren testua

• Nafarroako Gobernuak zer egingen du etorkinentzako doako osasun-laguntza bermatzeko, baldin eta Espainiako Gobernuak azkenean foru lege hori Konstituzio Auzitegian errekurritzen badu eta auzitegi horrek legearen aplikazioa eteten badu?

Iruñean, 2013ko irailaren 13an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

## **Galdera, Feder funtsei buruzkoa, Feder 2007-2013 programa eragilearen esparruan.**

*MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Feder funtsei buruzkoa, Feder 2007-2013 programa eragilearen esparruan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko irailaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioeko konseilari Esparza jaunak Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioeko Batzordean ahoz erantzun dezan:

Jakin dugu Nafarroako Gobernua eta Iruñeko Udala direla Feder funtsen hartzaile bakarrak, Feder 2007-2013 programa operatiboaren esparruan.

2013ko abuztura bitarte, Nafarroako Gobernuak 19.086.918,26 euro jaso ditu (13.260.975,78 euro, 2011tik 2013ra), guztira esleitutako 31.360.279 euroetatik. Epe berean, Iruñeko Udalak 1.400.000 euro baino zerbait gehiago bildu ditu. Orobat esaten zaigu Nafarroan Feder funtsen beste diru-sarrera batzuk eduki ditzaketela beste hartzaile batzuek, aipatu programa operatibotik kanpo, Europako lurralde-kooperazioaren bidetik.

Gure aldetik daukagun irudipena da, informazioa oso sakabanatuta dagoenez, eskualde eta udal esparruan aukerak galtzen direla abian diren ekimenetan parte hartzeko edo baliatzeko.

Hona galderak:

- Gobernuak nola baloratzen du errealitate hori? Gobernuaren ustez, toki entitateek zereginen bat izan lezakete, orain arte izandakoaz bestelakoa, funts horiek jasotzeari dagokionez? Baiezkoan, zer ahalegin egin beharko lirakeke Gobernuaren ustez? Gobernua prest egonen al litzateke bide horretan nolabaiteko laguntza emateko? Gobernuak ez al du uste lehen pauso bat izan litekeela horri buruzko informazio guztia zentralizatzeko zerbitzu bat egotea gutxienez ere, ikuspegi integral eta ez partzial bat izateko?

Iruñean, 2013ko irailaren 17an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

## **Galdera, Lan Autonomoaren Nafarroako Kontseiluaren eraketari buruzkoa.**

*ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Lan Autonomoaren Nafarroako Kontseiluaren eraketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko irailaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuko lehen lehendakariordeak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak noiz egingen du Nafarroako Lan Autonomoaren Kontseilua eratzeke bilerrako deialdia?

Iruñean, 2013ko irailaren 17an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

## **Galdera, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin etxegabetzeen gaineko hitzarmen bat sinatzeari buruzkoa.**

*ELOY VILLANUEVA CRUZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkeztutako galdera, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin etxegabetzeen gaineko hitzarmen bat sinatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko irailaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eloy Villanueva Cruz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik etxegabetzei buruzko akordiorik sinatzeko Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin, jarduketa protokolo bat ezartzearen, ahultasun bereziko egoerarako eta gizarte-bazterketako kasuetarako?

Iruñean, 2013ko irailaren 17an

Foru parlamentaria: Eloy Villanueva Cruz

## **Galdera, Tafallako Errekoleten eraikinari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Tafallako Errekoleten eraikinari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko irailaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Tafallako "Recoletas" eraikinari dagokionez –Tafallako Udalaren jabetzakoa da–, parlamentari honek haxe jakin nahi du:

Nafarroako Gobernuak eta Tafallako Udalak zer zuzemen eta bilera egin dituzte eraikin hori jadueraz hornitze aldera? Aurreikusitako eta aztertutako erabilerak zehaztea eskatzen dut.

Iruñean, 2013ko irailaren 17an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko harreman instituzionalei buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko harreman instituzionalei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko irailaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Parlamentari honek ondokoa jakin nahi du gaur egungo Eusko Jaurlaritza eratu zenez geroztik Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuaren eta Nafarroako Gobernuaren artean izandako hartu-emanen eta harreman instituzionalei buruz:

1. Ea Nafarroako Gobernuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuaren artean maila goreneko harreman trabagabea egon den edo dagoen.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakari Urkullu jaunaren eta Nafarroako Gobernuko lehendakari Barcina andrearen artean izandako bileren kopurua.

3. Kasua bada, jorratutako gaien eta sinatutako akordioen zerrenda.

4. Eusko Jaurlaritzako Lehendakariaren eta Nafarroako Gobernuko Lehendakariaren arteko bileren gai zerrendei, deialdiei eta bilera-eskariei buruz dagoen dokumentazio guztia igortzea eskatzen dut.

Iruñean, 2013ko irailaren 17an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, UPNk, PSNk eta PPNk Enpleguaren Mahaian adostutako neurriei buruzkoa.**

*ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, UPNk, PSNk eta PPNk Enpleguaren Mahaian adostutako neurriei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko irailaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Enplegu Mahaiari buruzko ondoko galdera aurkezten du, Ekonomia, Ogasun,

Industria eta Enplegu Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuko lehendakariak iragan irailaren 4an iragarri zuen hasiak direla aplikatzen Enplegu Mahaian UPNk, PSNk eta PPNk hitzartutako 60 neurrietako 41.

Eskueran dugun informazioa ikusita, hauxe jakin nahi dut:

Abian jarritako neurrien zerrenda, ondokoa zehaztuz horietako bakoitzari dagokionez:

– Ekitaldi honetarako eta hurrengoetarako aurrekontu erabilgarria, kasua bada.

– Aurrekontu betetzearen ehunekoa, galderari erantzuna ematen zaion egunean.

– Helburu zenbagarriak, eta betetzeari buruzko denbora-aurreikuspena.

– Zer administrazio publikok edo, kasua bada, entitate pribatuk garatzen duen neurria.

Iruñean, 2013ko irailaren 17an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba



## **Galdera, 2007-2013 urteetarako Nafarroako Landa Garapenerako Programaren gastu publikoari buruzkoa.**

*MIREN JULIA ARANO A ASTIGARRAGA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak aurkeztutako galdera, 2007-2013 urteetarako Nafarroako Landa Garapenerako Programaren gastu publikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko irailaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Aranoa Astigarragak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko organo eskudunak idatziz erantzun diezaion:

2007ko abenduaren 4an, Europako Batzordeak 2007-2013 urteetarako Nafarroako Landa

Garapenerako Programa onetsi zuen; gastu publikoa, guztira, 502.354.319 eurokoa zen.

1.- Zenbat egiten du Nafarroako Foru Komunitatean, Nafarroako Landa Garapenerako buruzko 2007tik 2013ra bitarteko Programa dela-eta, 2012an guztira betetako gastuak?

2.- 2012an egindako gastutik, zein izan da Nafarroako Gobernuak betetako gastua, eta zein Europar Batasunak Feader programaren bitartez betetako?

3.- 2012an egindako gastuetatik, Nafarroako Gobernuak nahiz Europar Batasunak ardatz bakoitzera bideratutako zenbateko osoak xehakaturatu:

a) Zenbat diru bideratu da 1. ardatzera (nekazaritza sektorearen lehiakortasuna)?

b) Zenbat diru bideratu da Feader programako 2. ardatzera (garapen iraugarri eta ingurumenarekiko begirunetsua)?

c) Zenbat diru bideratu da 3. ardatzera?

d) Zenbat diru bideratu da 4. ardatzera (Leader)?

Iruñean, 2013ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Miren Aranoa Astigarraga

## **Galdera, Nafarroako zenbait udalerriri 1. mailako menpekotasun larriko pertsonen etxez etxeko zerbitzua ordaintzeari buruzkoa.**

*PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako zenbait udalerriri 1. mailako menpekotasun larriko pertsonen etxez etxeko zerbitzua ordaintzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko irailaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Iragan martxoaren 13an, Geroa Baik eskatuta, Nafarroako Gobernuak Gizarte Politiketako kontseilari Alli Martínez jaunak agerraldia egin zuen batzordean, azaltze aldera Nafarroako Auzitegi Nagusiak emandako epai batean eragina eta ondorioak. Epai haren bidez Tafallako Udalari aitortu zaio 1. mailako menpekotasun larriko pertsonen etxez etxeko laguntzaren kostuari dagokion diru-laguntza jasotzeko eskubidea.

Gizarte Politiketako Batzordearen bilkura egunakarian jasotzen den bezala, kontseilariak deklaratu zuen “udalek eta toki entitateek ordaindua izanen dute 2012ari dagokion zenbatekoa, eta 2011ri dagokiona jasotzeko eskubidea izanen dute errekurtsua jarri dutenek”. Adierazpen horietatik ondorioztatzen ahal da 2011ko diru-laguntza –1. mailako menpekotasun larria dutenei dagokiena–

ordaintzeko konpromisoa (eta, hortaz, 2010ekoa) bakar-bakarrik administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri zuten udalei dagokiela.

Irakurketa bera egin liteke Iruñeko Udaleko Gizarte Ongizateko zinegotzi delegatuaren adierazpenen kasuan, udal horren 2013ko irailaren 9ko Herritarren Aferen Batzordearen aktan agerienez:

“Tafallakoa’ izenez ezagutzen den epaiaren ondorioei buruz Lakasta jaunak egindako galderaren erantzunean, Lezcano andreak dio Gobernuarekin hitz egin dutela, eta Gobernuak dioela epai bidez ordainduko duela”

Bestalde, irailaren 12an, Iruñeko SER katearen udal tertulian (30:30 minutuan), Nafarroak Baiko zinegotziak UPNren udal taldearen eledunari galdetu zion ea Nafarroako Gobernuak bere gain hartuko zituen 1. mailako menpekotasun larria dutenen etxez etxeko zerbitzuaren diru-laguntza ez ordaintzeagatik Nafarroako Gobernuak Iruñeko Udalari zor zizkion 380.000 euroak, eta zinegotziak hauxe erantzun zion: “une honetan dudan informazioaren arabera, erantzuna baiezkoa da”

UPNren eledunaren baieztapenetik ondoriozta daitekeenez ez datorrela bat Gizarte Politiketako kontseilariak batzordean adierazitakoarekin, uste dugu Nafarroako Gobernuak auzi hau ezinbestez argitu behar duela. Hori dela eta, hona galdera:

- Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Iruñeko Udalari ordaintzeko 1. mailako menpekotasun larria dutenen etxez etxeko zerbitzua 2010ean eta 2011n finantzatzegatik zor lizkiokeen 381.395,02 euroak? Eta, beste alde batetik, zein da zerbitzu hori bera dela-eta Nafarroako Gobernuak administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ez zuen udal bakoitzari zor liokeen zenbatekoa? Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik finantzaketa hori bere gain hartzeko?

Iruñean, 2013ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

## **Galdera, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 75.1 artikulua aplikazioari buruzkoa.**

*MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 75.1 artikulua aplikazioari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko irailaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeko 75.1 artikulua haxe xedatzen du: "Foru lege baten bidez baimendu beharko da abal-ematea. Horretarako, Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko foru legeak betiere ezarriko du abalen gehieneko arrisku bizia".

Praktikan, ordea, ez du ematen manu hori hitzez hitz betetzen ari denik; izan ere, Gobernuak ekitaldian abalatzan ahal duen gehieneko zenbatekoa zehazten da aurrekontuen foru legean, eta, ondoren, urte bakoitzeko kontu orokorretan jasotzen da abalen saldo bizia, abenduaren 31ko.

Hona galdera:

**1.** Gobernuaren ustez, zuzen ari al da aplikatzen legeko 75.1 artikulua?

**2.** Gobernuak aldatu egingen al du orain arte baliatutako irizpidea, abalei dagokienez, 2014ko aurrekontuen foru lege proiektuan?

Iruñean, 2013ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

## **Galdera, gastu-sabaia balizko zerga-aldaketetara egokitzeko aukerari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, gastu-sabaia balizko zerga-aldaketetara egokitzeko aukerari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko irailaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilari Lourdes Goicoecheak 2013ko irailaren 19ko Osoko Bilkuran esandakoari esker ezagutu dugu aukera dagoela gastu-sabaia balizko aldaketa fiskalei egokitzeko eta gastu-sabai hori ezartzera eraman duten parametroak aldatzeko. Hori dela-eta, parlamentari honek haxe jakin nahi du:

Nafarroako Gobernuak aurrekontua eta zergak eztabaidatzeko zer prozedura bultzatuko du, Nafa-

roako Gobernuak gastu-sabaiari buruzko definizioak ez dezan ekar horren aldez aurreko taxukerarako muga bat?

Iruñean, 2013ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

---

## **Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariak iragarritako zerga-erreforma integralari buruzkoa.**

### *MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariak iragarritako zerga-erreforma integralari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko irailaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Parlamentari honek ondokoa jakin nahi du orain dela gutxi Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcinak iragarritako erreforma fiskal integralari buruz:

1. Iragarritako erreforma integralak ukituko dituen zergen zerrenda.

2. Horien definizioa.

3. Erreforma hori noiz ekarriko den Legebiltzarrera, Nafarroako Parlamentuak izapidetzeko.

Iruñean, 2013ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari egindako komunikazioa, Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2013ko eztabaida dela-eta.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Gobernuaren komunikazioa, Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaida egin dadin eskatzen duena, Osoko Bilkurak eztabaida dezan, Legebiltzarreko Erregelamenduko 201. artikuluan xedatuarekin bat etorritz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko irailaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari egindako komunikazioa, Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2013ko eztabaida dela-eta**

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendua-ren 201. artikulua ezartzen duenez, legegintzarteko lehendabiziko bilkuraldiaren hasieran Legebiltzarreko Osoko Bilkura berezia eginen da erkidegoaren egoerari buruzko politika orokorra eztabaidatzeko, salbu eta Gobernuaren lehendakariaren inbestidura eztabaida egiten den urtean edo bilkuraldi horretan Nafarroan hauteskundeak egin behar direnean.

Artikulu horren lehen idatz-zatian adierazten denez, Nafarroako Gobernuak erkidegoko politika orokorrari eta egoerari buruzko komunikazio bat igorri ahal izanen du Parlamentura, osoko bilkura horretan eztabaidatzeko.

Aurten ere Foru Komunitateko egoeraren ezauzgarri nagusia zailtasun ekonomikoak dira, nazioarteko ekonomia nagusiei kalte nabarmena eragindien mundu mailako krisi finantzario eta ekonomikoak hasi zenetik ia seigarren urtez jarraian. Horre-

la, azken urte eta erdia bereziki gogorra izan da Europako ekonomia osoarentzat eta batez ere euroaren eremuan, amaierarik gabekoa zirudien atzeraldian sartuta. Oro har, Europako ekonomia moteldu egin da, eta kredituaren paralizazioa eta finantza merkatuetako tentsioak jasan ditugu; horrekin batera, kontsumoa nahiz barne eskaera ez atzera ez aurrera gelditu dira.

Testuinguru horretan, Foru Komunitatea ez da salbuespena izan krisi honen gertakariak eragindako ondorioei dagokienez. Aurtengo bigarren hiruhilekoan BPGa 2007ko laugarren hiruhilekoan baino ia ehuneko 2 apalagoa izan da. Egia da jaitziera txikia dela Espainiako ekonomian gertatu denarekin alderatuta, epe horretan berean BPGa % 6,5 jaitzi baitzen han.

Baina, era berean, Nafarroako ekonomiarako 2012a eta 2013a urte zailagoak izan dira: aurreko urteetan Nafarroako hazkundearen erregistroak Espainiakoak baino hobeak izan dira hutsik egin gabe, baina azken bi urteotan jardueraren beheranzko joera Espainiakoaren parekoa izan da (biek ala biek % 1,6ko jaitziera izan dute, 2013ko bigarren hiruhilekoa eta iazkoa alderatuta). Eta hori neurri handi batean Europako gure auzokideen industria jasaten ari den krisiari zor zaio.

Horrenbestez, krisi ekonomikoak ondorio larriak izan ditu: esate baterako, gure langabezia tasa oso altua da, eta denbora luzea behar da behera egiteko, eta foru ogasunaren dirubilketan dirusarrerak nabarmen murriztu dira, halako moduan non aurrekontuak urterik urtera egokitzen joan behar izan baititugu egungo errealitatera, defizit eta zorpetze helburuak betetzeko. 2012an Nafarroak aurrenekoz bete zuen ezarritako defizit helburua, eta Gobernu honen asmoa da ildo horri jarraitzea, aurrera begira bizkortzea sendoagoa eta iraunkorragoa izan dadin.

Une honetan, datuak ikusirik, esan daiteke nazioarteko egoera makroekonomikoan esperantza izpiak agertzen hasiak direla. Europaren bizkortzea oso ahula da oraindik, zalantzak ez

dira falta, eta testuinguru horretan jardun beharko du Nafarroako ekonomiak.

Ekonomia suspertzeko eta merkatua dinamizatzeko oinarri sendoak bultzatu eta finkatzeko lanean ari gara, Nafarroako hazkunderako oinarria industriari bultzada ematea izan behar delako, eta protagonista nagusiak, berriz, berrikuntza, esportazioa eta ekintzailtza: horrexegatik, abian dira jada Ekintzailtza eta Nazioartekotze planetako jarduketa asko, legealdi honetan onetsitakoak, eta hurrengo urteetarako honakoak proposatuko ditugu: zerga erreforma orokorra, nafarren egoera ez dadin izan gainerako espainiarrena baino okerragoa, iruzurraren kontrako plan berri bat, enplegu plan berria, eta industrializazioari laguntzeko esparru berri bat.

Hemendik aurrera ere Nafarroako Gobernuaren ahaleginduko da 2013-2015 urteetarako Ekintza Planean aurreikusitako beste neurriak gauzatzeko, bai eta Enplegu Mahaian adostutakoak ere, egoera honetatik ateratzeko eta krisi ekonomikoari aurre egiteko modurik onena direlakoan.

Krisi ekonomikoa hasi zenetik, Nafarroak bere dirusarreraren % 25 galdu du, zehazki 1.000 milioi euro gutxiago dauzkagu, eta egoerak kudeaketa eraginkorra eta arduratsua eskatzen du, Administrazioa merkeagoa, baliagarriagoa eta eraginkorragoa izan dadin behar diren erreformei heltzea baztertu gabe.

Maiatzaren 8an aurkeztu genuen ekintza plan horretan 38 neurri jaso ziren, hiru multzotan antolatuta, eta haiek gauzatzeko epeak zehazten dituen kronograma bat; ekonomian eta enpleguan orain arte izan duten eragina dela eta, aipagarriak dira, besteak beste, Sektore Publikoaren Berrantolaketaarako Bigarren Planari dagozkionak edo zentro teknologikoak berrantolatzeak, lehiakorragoak eta eraginkorragoak izan daitezkeen.

Gero eta herritar gehiago eskatzen ari dira Parlamentuko indar politikoen arteko akordioak Nafarroaren garapenaren alde, eta Nafarroako Gobernuaren bat dator eskaera horrekin. Konpromisoa du, halaber, beharrezkoak diren neurriak hartzeko jarduera produktiboa sustatzeko, ahalik eta babes politiko, ekonomiko eta sozial handienarekin betiere. Benetan uste dugu hauteskundeak aurreratzea traba izanen litzatekeela krisi ekonomikotik ateratzeko, eta, hortaz, Nafarroako Gobernuak adierazten du bere nahia dela akordioak eta adostasuna erdiestea, aurreko garaietan Foru Komunitatearen garapen sendoa halakoen eskutik etorri baitzen.

2014rako, Nafarroako Gobernuak egoera ekonomiko berriarekin bat datozen aurrekontu orokor errealistak proposatuko dizkio Nafarroako Parla-

mentuari, eta Nafarroako toki entitateen mapa berria burura eramateko eskatuko ere.

Nafarroako Ubidearen lehen fasea handitzeko lanak berehala hasiko dira, eta Abiadura Handiko Trena egitekoak aurrera doaz; horiei esker, Foru Komunitateak segituko du jarduera ekonomikoa eta lanpostuen sorrera bultzatzen, etorkizunari begira dituen bi apustu estrategiko nagusi horiek ardatz hartuta.

Espainiako autonomia erkidegoetan kalitate oneneko osasun zerbitzua duena Nafarroa dela berretsi da, batez besteko nazionaletik gorako prestazio sozialak mantendu ditugu, eta hezkuntza publikorako 350 irakasle berri kontratatu ditugu; horiek guztiek argi erakusten dute erkidego honek gizarte ongizatearen maila altuari eusteko egin duen ahalegina, aurrekontuen aldetik hain estu eta larri ibili garen garaietan.

Finean, azken bi urteotan Nafarroako ekonomiak Espainiakoak adina arazo izan baditu ere, Nafarroako Gobernuaren neurriei esker –administrazioaren kostua murrizteko kudeaketa arduratsua egitea, oinarritzko zerbitzu publikoen aldeko apustua egitea eta bizkortze ekonomikoaren alde tinko saiatzea–, gure erkidegoak aurrenekoz bete du defizit helburua, eta, aldi berean, Espainiako osasun, hezkuntza eta gizarte politikaren arloko prestazio altuenei eta langabezia tasa apalenei eutsi, langabezia tasa oraindik ere altua izanagatik.

Gure autogobernuaz baliatuz, Espainiako gainerako lurraldeekiko elkartasunez eta leialtasunez betiere, Nafarroako Gobernuak gure erkidegoaren eta Estatuaren arteko harremana arautzen duen Hitzarmen Ekonomikoaren eguneratzea eta aldatzea justua sustatuko ditu.

Urte osoan zehar, zenbait esparru nazionalen ezbaian jarri da gure autogobernuaren –hitzarmen ekonomikoari dagokionez–, behin baino gehiagotan. Gure foru araubideak gero eta sarrigo jasaten dituen erasoak ikusirik, Nafarroako Gobernuak dei egiten die Parlamentuko indarrei Espainian erroturiko Nafarroako Foru Komunitatearen erakunde eta eskumenen indarra eta sustapena sendotzera.

Nafarroako egungo egoerari buruzko eztabaida batean saihestezina da gai ekonomikoak nagusi izatea, baina horrek ezin du ezkatatu gure erkidegoan badela oraindik ETA erakunde terroristaren hilketak gaitzesteko gai izan ez den indar politiko parlamentariarik, lotsagarria bada ere, eta horrez gain, bere ideiak populazio osoari inposatu nahian segitzen dutela, hertsatzea, indarkeriaren gorespena eta probokazioa erabiliz, Nafarroako herri batzuetako festetan ikusi ahal izan denez.

Gai horietaz eta beste hainbatez eztabaidatzeak aukera emanen die herritarrei informazio zabalagoa izateko Nafarroako Parlamentuan dituzten ordezkarien planteamenduez, bai eta jakiteko ere noraino dauden prest populazioaren arazoetarako konponbide egingarri eta eraginkorrak aurkitzen laguntzeko.

Horrenbestez, jakinarazten dizut Nafarroako Gobernuak erabakia hartu duela Nafarroako Parlamentuan Foru Komunitatearen egoerari buruzko eztabaidari bide emateko.

Iruñean, 2013ko irailaren 18an

Nafarroako Gobernuko Lehendakaria: Yolanda Barcina Angulo

## **Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2013ko eztabaida antolatzeko arauak.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 23an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Onestea Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2013ko eztabaida antolatzeko ondoko arauak.

### **“Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2013ko eztabaida antolatzeko arauak**

#### **Urriaren 3an**

Eztabaida Erregelamenduko 201. artikuluan aurreikusitakoaren arabera egingen da, eta Nafarroako Gobernuko Lehendakariaren mintzaldiarekin hasiko da.

Azalpen hori amaiturik, bilkura ordu erdiz etenen da. Bilkura berriz hasten denean, mintzatuko dira mintzaldi-eskaera egiten duten parlamentu-talde guztien eledunak –30 minutuz gehienez ere– eta atxiki gabeko parlamentariak –15 minutuz gehienez ere–.

Mintzaldien hurrenkera parlamentari gehien dituen taldetik gutxien dituenak izanen da. Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldea salbuespena izanen da, azkena izanen baita mintzatzeko.

Mintzaldiak amaituta, Gobernuko Lehendakariak erantzun egingen die, mintzaldi bakoitzaren ondoren edo mintzaldi guztiak amaitutakoan.

Ondoren, erantzuteko txanda bat irekiko da, hamar minutukoa gehienez, eta atxiki gabeko parlamentariarentzat bost minutukoa izanen da gehienez ere.

Azkenik, eztabaida Lehendakariaren mintzaldiarekin bukatuko da.

Eztabaida bukatzen denean, ordu erdiko epea irekiko da parlamentu-taldeek Mahaiari erabaki proposamenak aurkeztu ahal izateko. Parlamentu-talde bakoitzak gehienez ere bost erabaki proposamen aurkeztu ahalko ditu eta atxiki gabeko parlamentariak gehienez bi.

#### **Urriaren 4an**

Mahaiak onarturiko proposamenak 90:30etik aitzina eztabaidatuko dira Osoko Bilkuran.

Erabaki proposamenak eztabaidatuko dira mintzaldien hurrenkera berean; hots, parlamentari gehien dituen taldearekin hasiz eta gutxien dituenarekin bukatuz, salbu eta Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari dagokionez, harenak azkenak eztabaidatuko baitira.

Parlamentu-talde edo Foru Parlamentari bakoitzak bere proposamenak batera defendatuko ditu, hamar minutuz gehienez. Ondoren, taldeen interbentzioen txanda bat irekiko da, aldekoa zein kontrakoa, eztabaidaren hurrenkera berean, eta erantzuteko txanda bat ere. Bi txanda horiek bost minutukoak izanen dira. Atxiki gabeko parlamentariak bost minutu izanen dituzte bere proposamenak defendatzeko.

Parlamentu-talde bakoitzaren proposamenak eztabaidatu ondoren, banan-banan bozkatuko dira erabaki proposamenak.”

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2013ko irailaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

